

Herria

«Herri baten
autogobernuak
exijitu behar du
zenbait baliorekin
identifikatzea, zure
kultura onartzea.
Alde horretatik
konplexuak kendu
behar ditugu»

tzen nauen arazoa da lurraldearen zatiketa. Horri jarri behar diogu arreta gehien, gainditu behar dugun barne arazo delako.

■ Autodeterminazioaren aitortza ere hor dago. Nola ikusten duzu prozesu hori?


Esango nuke ez dugula planteatu behar gaur bertan egin beharko bagenu bezala. Uste dut alde aurretiko lan bat dagoela. Herritar askok, batez ere Nafarroan eta Iparraldean, euskalduntasunaren kontzeptu berea egin behar dute, Katalunian sozialistek edo Eskozian lobaristek bezala. Euskalduntasun hori bazegoen garai batean Nafarroan, Kanpionen garaian esaterako. Orain doilortuta dago, alienazio prozesu bat dago, manipulatuta dago euskalduntasunari dagokion guztia. Orain, biolentziarik gabe, hori guztia berreskuratu behar dugu lehenengo.

■ Hala eta guztiz ere aurrera egingo ez balu?

EAEk bakarrik nahiko balu aurrera egin, lurralde-tasun printzipioari traizioa egitea litzateke autodeterminazio prozesu bat zabaltzea EAerentzat bakarrik? Beno, bada nik uste dut nola egiten den, horren arabera neurtu beharko genukeela. Uste dut gatazka politikari konponbidea emango liokeen negoziazio horretan gutxienez erreserba bat egin beharko genukeela beste lurralde horiei buruz. Aukera horrek, gainera, betiko izan beharko luke, nahi dutenean Euskal Herriaren prozesu horretan sar daitezten. Izan ere, ezin gara itxaroten eta itxaroten egon guztiok ez gaudelako.

■ Aldaketa ahalbidetzeko urratsak zehaztuko zenituzke?

Abertzaletasunak, pentsatzen dut, akats bat zuzendu behar du. Izan ere, ez da kasualitatea bi ente politiko eratu izana Hego Euskal Herrian, Nafarroa eta EAE. Egoera gainditzeko, eredu



MIREN SAEZ

«ETAk pentsatu behar du positiboa dela historiara pasatzea herriari hitza emanez»

ETAren su-etena behin-behinekoa dela gogoratu du EAKo lehendakariak. Hala ere, uste du aukera paregabea duela estrategia aldatzeko eta hitza behin betiko herriari emateko. «Pentsatu nahi dut ETAk ulertu duela unea iritsi dela politikagintzan murgiltzeko. Egoera konpontzeko urratsa egin du, eta eskatuko nuke inork ez eskatzea egindakoaren gaitzespena. Aurrera begiratu behar da. Estrategia aldaketa espero dut; izan ere, estrategia armatu guztiak baino eraginkorragoa da herri oso baten borondate argia. ETAk aldaketa hau behin betiko egiteko ausardia izan behar du, eta pentsatu behar du historiara igarotzea askoz positiboagoa izango dela horrela eginenez, herriari konfiantza emanez».

ETAk urrats hori egin ez dezan «probokazioak» izango direla pentsatzen du, halaber.

Probokatzailak «betiko» jokalekua amesten dutenak lirateke, Espainiako botere faktikoak hain zuzen ere. «Eraikuntza nazionalerako egokiena izanik biolentzia desagertzea, beste batzuek, normala denez, nahiago lukete estrategia aldaketa hori ez egitea. Horiek nahi dute ETA desagertzea, baina hutsune hori alderdi abertzaleen batasunak bete gabe».

Autodeterminazio eskubidea aitortu arte ez dela desegin jakinarazi du ETAk. Garaikoetxeak, hala ere, ez dio bestelako garrantzirik ematen adierazpen horri. «Egia da nolabait prozesuaren zaintza papera hartu duela beretzat. Baina adierazpen horretan erretorika asko dagoela uste dut. Seguruenik ezin du gauetik egunera aldatu, baina ez litzateke ezer aldatuko zeregin hori gordeko ez balu berarentzat».

konfederala baliagarria izan daiteke. Negoziatio prozesu bat badago ados jarri beharko dugu Nafarroako alderdiekin, gure gustuko izan ez arren. Ez dut uste mailari dagokionez parekatu daitez-

keenik. Nafarroak, izan ere, historia bat du, eta onartzen dugu hori legitimazio modura edo onartu beharko ditugu Nafarroaren eta EAeren erakundeak antolaketa ia konfederal batera joateko. Hori

urrats bat litzateke integrazio nazionalaren bidean.

■ Hezkuntza, kultura eta hizkuntza bultzatzea ezinbestekoa da herria egiteko. Orain arte egingadakoari erreparatu, uste

duzu azkarrago joan behar dela? Egokia iruditzen zaizu hartutako bidea?

Kontu handiz jokatu behar da gai hauekin. Gogoan dut lehendakari izendatu nindutenean atzerriko kazetariak galdetu zidatela ea funtzionario espainol guztiak kanporatuko genituen eta funtzionario euskaldunak jarriko genituen haien orde. N a t u r a l t a s u n osoz galdetu zidaten. Izan ere, Espainiak eta beste herri batzuek kanpotik etorritakoei Konstituzioa sinatzeko eta bertako Legeak errespetatzeko exijitzen diete. Herri baten autogobernuak, jakina, exijitu behar du zenbait baliorekin identifikatzea, zure kultura onartzea. Alde horretatik konplexuak kendu behar ditugu gainera. Uste dut kasu hauetan zuhurregiak izaten ari garela, gehiegi.

■ Adibideak jarriko zenituzke?

Esaterako, Hezkuntza sailburuak gure herria, gure historia edo gure geografia eza-gutu beharra azaldu duenean sekulako kritikak izan ditu. Ahotso altxatu diote, eta ez hemengoek. Leuntasun gehiegirekin aztertzen dira kontu horiek eta horregatik ez gara askotan argiak eta ausartak. Beraz, jakinda herri irekiena garela, konplexuak astindu eta gure herria defenditu behar dugu. Europarrak kezkatzen dira EEBBeko inbasio kulturalarengatik, eta babes neurriak hartzen dituzte, kuotak eta abar. Eta hemen daukagu herri bat kultura indartsu batzuek inguratuta, eta zenbait diskriminazio positibo jarri nahi dituenen, eskandalua pizten da. Erabat akomplexatuta gaude gai horiekin.

■ Aurrera egiteko abiapuntua zein litzateke?

Bi hitzetan esateko zaila da, baina hizkuntzak alor guztietan egon behar du. Euskarak bizi behar badu, gizarte arlo guztietara zabaldu behar du. Brusela, esaterako, frantses munduan enklabe flamenkoa da, eta horiek bankuari, adibide bat jartzearen, orriak flamenkoz exijitzen diote. Gainera, hara joaten denak onartu egiten du eta errespetatu egiten du. Horrelako zerbait egin beharko genuke hemen.

Felix Iriarte
GASTEIZ